

IRABAZI ITURRIAK

Gure zerbitzua beharrezkoa da kasu konkretu batzuetan eta oso lagungarria izan ahal da beste batzuetan. Beraz, bezeroak ordaindu nahiko dute gure zerbitzuak erabiltzearentan.

Gaur egun online ordaintzen da, hau da web guneetan zure txartelarekin ordainketa egiten duzu. Ordainketa hau askoz erosoagoa da diru fisikoarekin ordaintzea baino, Paypal, Bizum edo beste online baliabideekin. Gure bezeroek ordaindu behar duten guztia ordaintzen badute, berdin zaigu nola ordaintzen diguten, aldi batean edo ordainketa zatikatuen bidez... nahi duten moduan ordainduko dute eta nahi duten momentuan.

Gure enpresak lortuko dituen diru sarrerak, bi iturri ezberdinetatik datoz. Alde batetik, gure bezeroen erosketetatik (beherako zehaztuko ditugu gure zerbitzuak erabiltzeagatik ordainduko dituzten prezio ezberdinak) eta beste aldetik gure babesleen diru laguntzetatik eta donazioetatik (hau ere beherako azaltzen dugu).

Hasiera batean, gure lehiakideek dituzten prezioak jarraituz, antzeko prezioak jarriko ditugu. Horrela, bezeroak lortuko ditugu eta behin gure enpresa merkatuan finkatu ostean, gure ospea eta esperientzia handitzean, prezioak igotzea daukagu pentsatuta.

Jarraian gure enpresak bezeroei eskaintzen dizkien prezio eta zerbitzu ezberdinak zehaztuko ditugu:

- ***Itzultzaile estandarra: Turismorako eta historia kontuetarako, adibidez foro erromatar batera joaten bazara —> 50€/orduko***
- ***Itzultzaile enpresarioa: Enpresen negozioetan (enpresarien arteko elkarizketetan) ekonomia arloan jakintzak eukin behar ditu, adibidez bi herrialde ezberdinen artean dauden enpresariak elkartzen dira----->70€/orduko***
- ***Itzultzaile politikoa: Politika arloan espezializatua izan behar da---->120€/orduko***

